Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Maria Iruretagoiena Olano*

*Getaria, Gipuzkoa (1928)*



Aurkibidea

# Biografia



Ermuan jaio zen, hiru anai-arrebaren artean gazteena. Aita getariarra zen, ogibidez arotza; ama, aldiz, Zaldibiakoa zen, jostuna. Txikia zela Asuara joan ziren bizitzera, baina gerra hasi zenean Gernikara joan, eta bete-betean harrapatu zituen bonbardaketak. Ama eta hiru seme-alabak Bordelera joan ziren itsasontzian ihesi, eta handik Bartzelonara. Gerra amaitu zenean, Euskal Herrira itzuli ziren eta orduan jakin zuten aita fusilatu egin zietela. Itzulitakoan, familiak sakabanatu egin behar izan zuen, eta Maria Getariako senide batzuen etxean gelditu zen. Ordutik Getarian bizi, ezkondu eta lan egin izan du.

# Zintak

## GET-024

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-08-12
- **Iraupena**: 46 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

## GET-025

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-08-12
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

# Pasarteak

## 1. Gurasoen jatorria eta bizimodua

- **Erref**: GET-024/002
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:01:27. **Bukatu**: 00:03:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Lanbideak » Arotzak

**Laburpena**:
Ama Zaldibiakoa zuen eta aita Getariakoa. Gurasoak nola ezagutu zuten elkar azaltzen du. Aita arotza zen eta ama jostuna. Gurasoak lanetik irten bitartean, haurtzaindegi antzeko batean egoten ziren 20 bat umeko taldean.

## 2. Asuatik josteko makina hartuta, Gernikara ihesi

- **Erref**: GET-024/004
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:03:29. **Bukatu**: 00:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Gurasoek lana etxean eta etxetik kanpo egiten zuten. Ama jostuna zen; eta gerran, Asuatik Gernikara ihesi egin behar izan zutenean, josteko makinaren zati bat hartu zuen berekin, hura baitzen bere bizibidea.

## 3. Gernikako bonbardaketan bizitakoa

- **Erref**: GET-024/007
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:05:48. **Bukatu**: 00:09:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena**:
Gernikan kalean bizi zen jendea, ahal zuten moduan babestuta. Gernikako bonbardaketa gogoan du. Gernikan, janaria kamioi batean ekartzen zieten. Bonbardaketak iraun bitartean, alarma-soinua zegoen. Bonbardaketa aurreko giroa nolakoa zen azaltzen du. Aita preso hartu zuten Gernikan.

## 4. Gernikatik ihesi, Bordelera itsasontziz

- **Erref**: GET-024/009
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:10:15. **Bukatu**: 00:12:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Gernikatik ihesi, Bordelera joan ziren itsasontziz. Itsasontzian kandelekin berotutako ogitarteko txikiak jaten zituzten. Denak emakumeak eta umeak ziren itsasontzian. Bidaian 8 egun eman zituzten.

## 5. Bordele eta Bartzelonako bizimodua

- **Erref**: GET-024/010
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:12:01. **Bukatu**: 00:13:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Bordelen 6 hilabete egon ziren komentu batean. Jaten ematen zieten egunean bitan. Han egon ziren bitartean, leku berezian ematen zieten jaten. Handik Bartzelonara joan ziren, eta amak kartzelara eraman zuten hiru egun, alabari Miren izenaz deitu ziolako.

## 6. Bartzelonan bizirauten

- **Erref**: GET-024/012
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:13:56. **Bukatu**: 00:15:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Bordeletik Bartzelonara joan ziren, eta 13 hilabete egon ziren han. Han jakin zuten aita Gernikan fusilatu zutela. Beraiek komentu batean egoten ziren, eta jaten ematen zieten. Ume txikiak Bartzelonako familietan hartu zituzten, eta hala hartu zuten Maria ere. Gainerako senideak nola-hala moldatu ziren bizirauteko. Komentuetan ematen zieten janariari buruz hitz egiten du.

## 7. Bartzelonako familiaren etxean gustura

- **Erref**: GET-024/013
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:15:49. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Bartzelonan egon zen bitartean, familia baten etxean hartu zuten. Han oso ondo egon zen, ondo zaindu zuten bai bera, bai eta bere senideak ere. Familia hartakoekin erdaraz hitz egiten zuen eta aldatu egin zioten izena: Miren izatetik, Maria izatera pasa zen. Ama kartzelan egona zen Miren izena esateagatik gerra garaian.

## 8. Gerra amaitutakoan, Euskal Herrira itzuli eta senideak sakabanatu

- **Erref**: GET-024/014
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:17:25. **Bukatu**: 00:19:14

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

**Laburpena**:
Bartzelonan zeudela bukatu zen gerra, eta zeukaten dirua baliorik gabe geratu zen; ezer gabe geratu ziren. Donostiara trenez itzuli ziren eta senideak sakabanatu egin zituzten. Gerora, Bartzelonako familiarekin harremana mantendu zuten, baina azkenean galdu egin zen.

## 9. Akerregi Txikin bizi zenekoa

- **Erref**: GET-024/016
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:19:33. **Bukatu**: 00:20:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Akerregi Txikin egon zen, lehengusu txikien etxean. Han baserriko lanak egiten zituen eta esnea banatzera joaten zen herrira. Esnea banatzeko neurriak nola kalkulatzen ziren azaltzen du.

## 10. Senideak nola-hala aurrera ateratakoak

- **Erref**: GET-024/018
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:22:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena**:
Gerra amaitutakoan, ama Donostian egon zen neskame; anai-arrebak nola moldatu ziren azaltzen du.

## 11. Komunioa eta orduko soinekoa

- **Erref**: GET-024/020
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:24:44. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Komunioa Zaldibian egin zuen hamar urte zituela. Komunio bakarra egin zuen berak, eta orduko soinekoa nolakoa zen gogoan du.

## 12. Lehengo janzkera eta josten ikasteko gogoa

- **Erref**: GET-024/021
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:25:35. **Bukatu**: 00:28:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Lehen nola janzten ziren azaltzen du. Arropa aprobetxatzeko, tela zatiak eransten zizkieten arropei txikiegi geratzen zitzaizkienean. Ama jostuna zutenez, arropa polita josten zien. Mariak nahi izan zuen josten ikasi, baina baserriko lanak ez zion denbora askorik uzten hartarako.

## 13. Mutil-lagunarekin egiten zituen planak

- **Erref**: GET-024/023
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:28:25. **Bukatu**: 00:30:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Etxeginak

**Laburpena**:
19 urte zituela hasi zen mutil-lagunarekin. Hark Zumaia inguruko harrobi batean egiten zuen lan, eta bien ordutegiak errespetatuz tarteak topatzen zituzten elkar ikusteko. Igandetan jartzen zuten hitzordua elkarrekin egoteko; plan ugari antolatzen zituzten: besteak beste, zinera joatea, bizikletan ibiltzea...

## 14. Eskolako oroitzapenak

- **Erref**: GET-024/026
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:31:37. **Bukatu**: 00:33:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

**Laburpena**:
Eskolan abestiak ikasten zituzten; arbelean idatzitakoa kopiatzen zuten koadernoan, eta ortografia begiratzen zieten. Eskolako eraikuntza non zegoen azaltzen du. Eskolan erdaraz egiten zuten, maistra erdalduna baitzen eta zigorrak jartzen zizkieten euskaraz hitz egiten zutenean.

## 15. Umetako jolasak

- **Erref**: GET-024/028
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:33:46. **Bukatu**: 00:36:11

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
Umetan zer jolasetan aritzen ziren kontatzen du: sokasaltoan, sakaponetan, potorro-potorron... Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren jolasean. Eskolako urteetan jolasten ziren.

## 16. Baserriko lanak eta otorduak

- **Erref**: GET-024/030
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:36:41. **Bukatu**: 00:37:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Baserrian denetik egin behar izaten zuen: soroan, garbiketan, sukaldean... Ganaduarekin gizonak ibiltzen ziren. Ze abere zituzten. Lehen zer jaten zuten azaltzen du.

## 17. Gerran gosea bai, baina gerraostean ez

- **Erref**: GET-024/032
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:37:56. **Bukatu**: 00:38:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena**:
Goserik ez zuten pasa gerraostean; bai, ordea, gerra denboran. Gerra garaian nola moldatzen ziren jateko azaltzen du.

## 18. Arropa garbitzeko moduak

- **Erref**: GET-024/033
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:38:51. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena**:
Arropa garbitzeko, errekara joaten ziren zinka buruan zutela. Errekan Txinbo

eta Lagarto xaboiak erabiltzen zituzten. Sutako hautsarekin lixiba egiten zuten.

## 19. Koltxoien materiala eta banaketa

- **Erref**: GET-024/035
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:42:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Koltxoiak urtean behin astintzen zituzten. Artilea zuten koltxoiek barruan; baina lehenagoko garaietan artoen hostoa izaten zuten. Koltxoien banaketa nola egiten zuten azaltzen du.

## 20. Sukaldean aritzen Zestoan ikasitakoa

- **Erref**: GET-024/037
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:42:46. **Bukatu**: 00:43:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
18 urterekin sukaldean ibiltzen ikasi zuen Zestoan. Ahizparen bitartez lortu zuen han ikastea.

## 21. Asuatik Gernikara babes bila eta bonbardaketak harrapatu

- **Erref**: GET-025/003
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:03:08. **Bukatu**: 00:07:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Asuan bizi zireneko bizimodua kontatzen du: aita arotza zen; ama jostuna zen eta batzuetan taberna batean egiten zuen lan. Beraiek umeak ziren eta jolasean aritzen ziren. Gerra hasi zenean, jendea ihesi joan zen Gernikara, han babesa bilatzeko asmoz. Bonbardaketa izan zen orduan eta ahal ziren moduan babestu ziren.

## 22. "Arriba España" ez esateagatik fusilatutakoak

- **Erref**: GET-025/005
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:07:17. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena**:
Gernikan, emakume batek "arriba España" esan nahi ez izateagatik, lau seme-alabekin batera fusilatu zuten.

## 23. Gernikatik Bordelera itsasontzian ihesi

- **Erref**: GET-025/006
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:11:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Gernikatik Bordelera itsasontziz joan ziren. Bilbon ontziratu ziren eta pare bat egun eman zituzten itsasontzia kargatzen. Bordelen sei hilabete egon ziren eta lehendik hustutako komentuetan bizi ziren. Han zer baldintzatan bizi ziren azaltzen du: non egiten zuten lo, zer jaten zuten...

## 24. Bartzelonako bizimodua errefuxiatu gisa

- **Erref**: GET-025/007
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:11:14. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Bordeletik Bartzelonara bidali zituzten denak trenez eta han egon ziren 13 hilabete. Anaiak ozta-ozta lortu zuen beraiekin joatea, Bilbotik irtetean altuera batetik gorako mutilei ez baitzieten uzten alde egiten. Bartzelonan janaria nondik lortzen zuten azaltzen du.

## 25. Bartzelonako bikote baten etxean hartu zutenekoa

- **Erref**: GET-025/008
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena**:
Bartzelonan bikote baten etxean egon zen Maria. Izan ere, familia dirudunek etxeetan hartzen zituzten seme-alaba asko zituzten emakume errefuxiatuen ume txikienak. Noizean behin, amak bisita egiten zion.

## 26. Bartzelonan bizirauten: jatekoa eta babeslekuak

- **Erref**: GET-025/009
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
Bartzelonan etxez etxe ibili behar izan zuten eskean, eta jendeak janaria ematen zien. Bonbardaketak zirenean, sirena jotzen zuten eta tunel batzuetara joaten ziren babestera. Behin tunelaren sarrera batean bota zuten bonba eta barruan ito beharrean egon ziren herio batean.

## 27. Bartzelonako eguneroko bizimodua

- **Erref**: GET-025/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:19:47. **Bukatu**: 00:21:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Behin kalizarekin mozkortu zirenekoa kontatzen du. Anaia haserretu egiten zen babeslekura joan behar izaten zutenean, goizegi baziren lotan jarraitu nahi izaten zuelako. Bartzelonan zegoela, panpina bat oparitu zioten eta Euskal Herrira itzultzean, berekin ekarri zuen.

## 28. Euskal Herrira itzulitakoan, familia sakabanatu

- **Erref**: GET-025/011
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:21:27. **Bukatu**: 00:24:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
1939an, gerra bukatu zenean, Bartzelonatik etxera etorri ziren trenez. Zarautzera iritsi eta familiakoak joan ziren beren bila. Pixkanaka, senideak sakabanatzen joan ziren: Maria Zarautzera joan zen eta handik Getariako izeba baten baserrira eraman zuten 1940an.

## 29. Aita Gernikan fusilatu zutela jakin zutenekoa

- **Erref**: GET-025/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:25:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Bartzelonan zeudela, aita Gernikan fusilatu zutela jakin zuten. Umea zenez, ez zen konturatzen egoeraz, baina bere amak eta ahizpak asko sufritu zuten.

## 30. Eskolara gutxi joan ahal izandakoa

- **Erref**: GET-025/014
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:26:07. **Bukatu**: 00:28:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

**Laburpena**:
Getarian Akerregitxiki baserrian zegoela, eguraldi txarra egiten zuenean bakarrik joaten zen eskolara. Gau-eskolan eta herri-eskolan ikasi zuen, baina gauza gutxi ikasten zuten, erdi jolasean aritzen baitziren. Herri-eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Katona eta entziklopedia erabiltzen zituzten ikasteko.

## 31. Garbitasuna eta etxeko erremedioak

- **Erref**: GET-025/016
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:28:53. **Bukatu**: 00:32:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena**:
Baserrian soroko lanak, sukaldeko lanak eta garbiketak egiten zituen. Garbiketa egiteko zer produktu erabiltzen zituen azaltzen du. Zinka buruan hartuta errekara joaten ziren arropak garbitzera. Neguan eskuak zartatu egiten zitzaizkien urarengatik, eta pixa edo olioa erabiltzen zuten eskuak zaintzeko. Arkakuso asko zeuden orduan eta ozpina ematen zuten haiek uxatzeko. Gerora hauts batzuk sortu ziren, eta hari esker arkakuso gutxiago egoten ziren.

## 32. Etxeko koltxoien ezaugarriak eta garbiketa

- **Erref**: GET-025/017
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:32:36. **Bukatu**: 00:33:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena**:
Koltxoiak arkumearen ilezkoak izaten ziren. Urtean behin ilea atera, makilarekin jo eta berriro sartzen zuten zorroan. Mantak baino, koltxilak erabiltzen zituzten. Bakoitzak bere ohea izaten zuen.

## 33. Etxeko garbiketak egiteko tresnak eta produktuak

- **Erref**: GET-025/019
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:33:53. **Bukatu**: 00:35:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
Etxean lurra garbitzen zuten eta hartarako zer tresna eta produktu erabiltzen zituzten azaltzen du. Etxean usain goxoa izateko, mendabeltza erabiltzen zuten.

## 34. Etxean egindako koloniak

- **Erref**: GET-025/020
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:35:58. **Bukatu**: 00:37:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
Mariak kolonia egiten zuen arrosekin. Gerora, ordea, drogeriako produktuak erabiltzen zituen.

## 35. Lehengo estetika: depilatzea eta eguzkia hartzea

- **Erref**: GET-025/022
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:37:33. **Bukatu**: 00:38:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

**Laburpena**:
18-19 urte inguru zituela, depilatzeko ohitura hartzen hasi ziren. Nola depilatzen ziren azaltzen du. Ez ziren eguzkia hartzera joaten, baizik eta soroan zebiltzala hartzen zuten eguzkia.

## 36. Modan egondako orrazkerak

- **Erref**: GET-025/023
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:38:49. **Bukatu**: 00:40:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

**Laburpena**:
Modan egondako orrazkerei buruz hitz egiten du: umetan melena, gerora permanentea, mototsa... Ile-apaindegira joateko dirua etxekoei edo amari eskatuta lortzen zuen.

## 37. Baserriko lanak eta behiak ugaltzeko egin beharrekoa

- **Erref**: GET-025/025
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:41:37. **Bukatu**: 00:43:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena**:
Baserrian garia eta artoa lantzen zuten. Goserik ez zuten pasa. Ganadua bazuten; behiak ugaltzeko zezenarengana eramaten zituzten eta zezenaren jabeari ordaindu egiten zioten. Zezenak non egoten ziren aipatzen du. Zezenketarik ez zen izaten lehen, baina idi-dema bai.

## 38. Aisialdiko planak: erromeriak eta zinema

- **Erref**: GET-025/026
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:44:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena**:
Erromeriak Meagan eta Oikian izaten ziren lehen. Musika egoten zen, dantzan egiten zuten, eta etxerakoan neskak oso urruti bizi baziren, mutilek bi aldiz pentsatzen zuten lagundu aurretik. Zarautzera zinemara joaten ziren, eta bueltakoan pastela jaten zuten dirua edukiz gero.

## 39. Mutilarekin hasi zenekoa

- **Erref**: GET-025/027
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:44:58. **Bukatu**: 00:46:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

**Laburpena**:
Mutila nola ezagutu zuen azaltzen du. Igandetan elkartzen ziren eta ezin bazuten, nola edo hala konpontzen ziren elkarri abisatzeko.

## 40. Bataioei lotutako ohiturak eta osasuna zaintzeko bideak

- **Erref**: GET-025/029
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:47:19. **Bukatu**: 00:49:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

**Laburpena**:
Lehen haurrak zortzi egun inguru zituztela bataiatzen zituzten. Amak ezin izaten zuen haurra bataiatu bitartean etxetik irten. Umeak etxean jaiotzen ziren. Medikua behar izanez gero, haren etxera joaten ziren. Gaixotzen zirenean zer erremedio izaten zituzten aipatzen du.

## 41. Ateak nola ixten zituzten

- **Erref**: GET-025/030
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:49:44. **Bukatu**: 00:50:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Baserrian bazituzten leihoak. Ateak ixteko ez zegoen giltzarik, maratila baizik. Ez zen lapurretarik izaten lehen.

## 42. Arrainarekin lotutako lanetan ibilitakoa bizi guztian

- **Erref**: GET-025/031
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:50:37. **Bukatu**: 00:52:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

**Laburpena**:
Gizona arrantzalea izanda, haiek harrapatzen zuten arraina jaten zuten etxean. Ezkondutakoan, antxoa-lanean aritu zen. Lan hartan zer egiten zuten azaltzen du. Gerora, 25 urte ibili zen antxoa-lanean koinatuarekin batera.

## 43. Aurrerapenak pixkanaka sartzen joan etxean

- **Erref**: GET-025/032
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:52:36. **Bukatu**: 00:54:09

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

**Laburpena**:
Etxetik kanpo lan egiten bazuen ere, etxeko lanak berak eramaten zituen. Aurrerapenak asko estimatu izan ditu. Baserrian ura bazuten, etxean depositu handi bat baitzuten; gerora jarri zuten ur korrontea. Janaria kontserbatzeko non gordetzen zuten azaltzen du. Lehen ez zuten telefono edo irratirik.

## 44. Ezkondutakoan eztei-bidaia Bartzelonara

- **Erref**: GET-025/033
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:54:09. **Bukatu**: 00:55:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena**:
Itziarren ezkondu ziren eta eztei-bidaia non egin zuten azaltzen du. Gehienbat trenez eta autobusez ibili ziren.

## 45. Elizaren debekuak: dantza lotua eta zenbait pelikula

- **Erref**: GET-025/034
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:55:44. **Bukatu**: 00:57:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena**:
Erromerietan dantza lotua egitea debekatuta zegoen. Harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zituzten eta desohore handia izaten zen hori. Zinemara zenbait pelikula ikustera joaten ere ez zien uzten apaizak.

## 46. Mutilarekin egiten ziren planak

- **Erref**: GET-025/035
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:57:33. **Bukatu**: 00:58:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena**:
Mutilarekin normalean zer plan egiten zituen aipatzen du: zinea, komediak ikustera...

## 47. Izandako zaletasunak

- **Erref**: GET-025/039
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 01:02:53. **Bukatu**: 01:04:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Natura » Flora

**Laburpena**:
Irrati-nobelak entzutea gustatzen zitzaion, baina denbora zuenean bakarrik entzuten zituen. Loreak zaintzea beti gustatu izan zaio.

## 48. Emakumeen lehengo janzkera

- **Erref**: GET-025/040
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:04:15. **Bukatu**: 01:06:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena**:
Lehen arropak nola izaten ziren azaltzen du: alaiak, loredunak... Baina lutoa zenean, zorrotz errespetatu behar izaten zuten hura: beltzez joan behar zuten eta ezin izaten zuten erromeriara joan. Emakume edadetuek mantala eta buruko zapia eramaten zuten beti.

## 49. Ezkondu zen eguneko oroitzapenak

- **Erref**: GET-025/042
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 01:07:17. **Bukatu**: 01:08:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena**:
Itziarren ezkondu zen Maria senarrarekin eta Mutrikun eman zuten bazkaria. Gogoan du oraindik zer jan zuten. Ezkontzara familiakoak gonbidatu zituzten.

## 50. Norbait hiltzen zenean izaten ziren ohiturak

- **Erref**: GET-025/043
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 01:08:36. **Bukatu**: 01:10:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

**Laburpena**:
Norbait hiltzen zenean, gaubeila izaten zen. Jendea etortzen zen etxera eta jateko eta edateko ematen zitzaien. Azkenean kendu egin zen ohitura hori,

gaupasa egitea bezala baitzen. Ehorzketetan hiru kategoria zeuden. Hildakoak hilkutxan sartzeko nola prestatzen zituzten aipatzen du.

## 51. Hortzetako higienea eta zainketa

- **Erref**: GET-025/045
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 01:11:31. **Bukatu**: 01:13:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena**:
Lehen dentistarengana ez ziren joaten normalean, baina berak joan egin behar izan zuen hortz bat puskatu zuelako. Lehen hortzak kentzeko erabakia erraz hartzen zen eta ez zen anestesiarik egoten gainera. Hortzak garbitzeko bikarbonatoa erabiltzen zuten.

## 52. Gabonetako menua eta txerri-hiltzea

- **Erref**: GET-025/047
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:13:46. **Bukatu**: 01:15:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

**Laburpena**:
Gabonetan zer jaten zuten azaltzen du. Txerria urtean bitan hiltzen zuten, haietako bat Gabonetarako. Txerria harakinak hiltzen zuen etxera etorrita eta dirutan edo janaritan ordaintzen zitzaion. Arrain gutxi jaten zuten baserrian.

## 53. Hondartzara joaten zirenekoa

- **Erref**: GET-025/048
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:15:25. **Bukatu**: 01:16:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena**:
Lehen ere hondartzara joaten ziren eta zer janzkera izaten zuten deskribatzen du. Hondartzara igandetan joaten ziren joatekotan eta bainatu egiten ziren; ez zeukaten eguzkia hartzeko ohiturarik.

## 54. Bizikletan ibiltzen ikasi eta aritu

- **Erref**: GET-025/049
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:16:37. **Bukatu**: 01:18:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena**:
Mendira ez ziren joaten. Noizean behin alokairuan hartzen zituzten bizikletak. Berak ganbarako bizikleta zahar batekin ikasi zuen ibiltzen.

## 55. Hezurrak haustean erabilitako erremedioak

- **Erref**: GET-025/050
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:18:03. **Bukatu**: 01:19:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena**:
Txikitan behatza hautsi zuen, baina ez zioten behar bezala sendatu bere garaian eta gerora ezin izan zioten zuzendu. Medikuarengana joan ahal izateko, hiru hilabetetik behin kuota ordaindu behar izaten zuten.

## 56. Antxoa-fabrikako lan-baldintzak eta arrantzako aurrerapenak

- **Erref**: GET-025/051
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:19:36. **Bukatu**: 01:21:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

**Laburpena**:
Antxoa-fabrikatan aritu zen lanean, eta orduko lan-baldintzak nolakoak ziren aipatzen du. Lehen itsasontziak txikiagoak izaten ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-10*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com